

ETBk kate elebidun bakarria eduki behar du PPren ustez

DONOSTIA

ETBk kate elebidun bakarria behar duela aldarrikatu zuen atzo Partidu Popularrak. Leopoldo Barreda, PP alderdiak Eusko Legebiltzarrean duen bozeramalearen iritziz, «ETB etengabe ari da aurrera egiten eta hori dirutza publikoari esker egiten du» salatu zuen Barredak.

PSOeren jarrera ere gogor kritikatu zuen PPK «duela zortzi hilebete oposizioan zenean, orain ontzat ematen duena kritikatzeko zuelako» gehituz. Gonzalo Machin Euskal Autonomi Elkarte PPko 'Nuevas Generaciones-eko' lehendakariak, bestalde, EITBk xurgatzen duen aurrekontuaren zatia «gehiagizkoa» dela gaineratu zuen. Bere aburuz, Kultura Saileko aurrekontuaren % 50 EITBra bideratzen da, kultur talde gehienak dirulaguntzarik gabe geratzen diren bitartean».

Ikastolak

PPk Hezkuntza Sailari egindako kritikak elektoralistatzat jo ditu Jaurlaritzak

Hezkuntza «beste eskuetan egonik» okerrago legokeela esan du Hezkuntza Sailak

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak PPK egindako kritikak erantzun ditu, salaketak ez direla batere serioak esanez. PPK egindako kritikak, Espainian egiten ari den hauteskunde kanpainaren barne sartzen dira Jose Luis Avila Hezkuntza Sailarteko Koordinazio kontseilariordearen hitzetan.

DONOSTIA

PP alderdiak egindako kritikak, hauteskunde kanpainaren barne sartzen direla esan zuen Jose Luis Avila Hezkuntza Sailarteko Koordinazio kontseilariak. «eta gainontzean 1992. urteko aurrekontuak ez dituzte



Ikastolak «gainfinantziaturik» daudela esan zuen PPK.

oraindik irakurri» adierazi zuen Avilak.

Ikastolak «gainfinantzaturik» zaudela eta, PPK egindako salaketak gaitzetsi egin zituen Hezkuntza Sailak «gainfinantzaketa ez delako ikastetxe publikoekiko, sare pribatu eta zentru kontzertatuekiko baizik» zehaztu zuen Avilak. Berak azaldu

zuenek, Hezkuntza Saila «gainfinantzaketa» hori arautzen ari da eta Euskal Eskola Publikoaren legea atera bezain pronto ikastolak barneratzen ez badira, dirua itzuli beharko luketela argitu zuen.

«Hezkuntza Sailak ezin du ikastolen gainfinantzaketarekin amaitu, konfrentzia helburu duen legeak

✓ Ikastolen «gainfinantziaketa» sare pribatu eta zentru kontzertatuekiko dela adierazi du Hezkuntza Sailak.

eusten diolako horri» esan zuen Avilak. Dena den, eta konfrentzia lortu bitartean finantzaketa arautzearen alde azaldu zen. Ikastetxe publikoetako irakaslegoa homologatzeko zentimurik ez dela bideratzen esanez gezurtatu zituen Avilak PPK egindako salaketak. «Jaurlaritzak homologazioa egiteko asmoa du, eta epe laburren gertatuz gero, kreditu bereziak arautuko ditu Jaurlaritzak berau egitearren» gaineratu zuen.

Unibertsitateari buruz ihardutean, aldiz, Unibertsitatea ez dutela inoiz bere horretan utzi azpimarratu zuen Avilak, «gertatzen dena da, egun dituen arazoak ez direla 1992. urtean konponduko, epe luzeagoari begira baizik».

HILDAKOAK



BIZKAIA

- BILBO**
Andres Laresgoiti Otaola, 89 urte.
Maria Luz Bilbao Agirre.
Maria Victoria Ibañez Lopez.
- ALGORTA**
Miguel Ralui Aretxabala.
Luis Ugarte Agirregabiria, 82 urte.
Carmen Arana Mendietta, 82 urte.
- BASAURI**
Gabino Gorostiaga Azkue, 90 urte.
Jesus Mugaguren Garai, 65 urte.
- BERMEO**
Martin Bilbao Bilbao, 80 urte.
- DURANGO**
Antonio Etxenagusia Ferreria, 82 urte.
- EA**
Irene Zubieta Latxiondo, 77 urte.
- ELORRIO**
Ana Murgoitio Mendikoetxea, 86 urte.
- GALDAKAO**
Alejandro Barrueta Barrutia, 68 urte.
- GERNIKA**
Tomas Intxausti Jaio, 70 urte.
- IGORRE**
Maria Egia Urizarri, 90 urte.
- LEMOIZ**
Antonio Gurtubai Atxutegi, 78 urte.
- MUNGIA**
Maria Urrutia Urrutiá, 89 urte.
- MUSKIZ**
Rosario Perez Macia, 54 urte.
- ZAMUDIO**
Josefa Diego Aranburu, 81 urte.
- GIPUZKOA**
- DONOSTIA**
Casilda Gonzalez de Suso y Fernandez de Matauko.
Hipolita Lopez Gutierrez, 71 urte.
Maria Cruz Azkue Gonzalez, 86 urte.
Maria Fernandez Mansilla, 89 urte.
Salvador Bravo Olalla.
Aurelio Rubio Goñi, 75 urte.
- AZPEITIA**
Antonio Garate Arruti, 87 urte.
- ESKORIATZA**
Concepcion Gogorza Sagastibelza, 91 urte.
- GATZAGA**
Francisca Badiola Arizmendiarría, 69 urte.

HONDARRIBIA

- Javier Zinkunegi Elustondo, 43 urte.
- IRUN**
Nica Antolin Blanco, 64 urte.
- LEGAZPI**
Anita Arruabarrena Mendizabal, 80 urte.
- MUTRIKU**
Jose Mari Agirrezabala Amutxategi, 48 urte.
- PASAIA**
Pedro Magallon Bardajil, 61 urte.
- ZARAUTZ**
Martina Iruetagoiena Berasaluze, 76 urte.
- ARABA**
- GASTEIZ**
Gabriel Laza Rey, 59 urte.
Olimpia Lopez Gomez, 60 urte.
- BERNEDO**
Julian Najera Foronda, 63 urte.
- NAFARROA**
- IRUÑEA**
Josefina Astrain Bakedano.
Isidro Villar Sola, 79 urte.
Teresa Apezetxea Lizaso, 20 urte.
Victoriano Nuin Garriz, 81 urte.
- GOIZUETA**
Juliana Untxalo Apezetxea, 92 urte.
- OTSAGABIA**
Remigio Camellon Zarraluki, 71 urte.
- LAPURDI**
- BAIONA**
Jeanne Lesa-Paulin, 94 urte.
- ANGELU**
Andre Roze, 69 urte.
- ZIBURU**
Marie Mixelena, 73 urte.
- NAFARROA**
- BEHEREA**
- BAIGORRI**
Agnes Dupuy, 81 urte.
- ORTZAIZE**
Jean Uhart, 80 urte.
- ZUBEROA**
- ALTZAI**
Engrace Bidalun-Etxebarne, 64 urte.
- URDIÑARBE**
Anne Marie Nekezaur-Hegoburu, 69 urte.

Iruñeko udal ikastolen eskakizuna konponbidean egon daiteke berehala

PATTI ARRETXEA / IRUÑEA

Herenegun Iruñeko Udaleko Hiritar Zerbitzuaren bileraren ondoren PSOE, HB, EA eta IU taldeek hiru teknikari kontratatze erabakia hartu zuten, hilaren 30a baino lehen Nafarroako Gobernuak arazoari aterabide bat ez badio bilatzen.

Nafarroako Gobernuak gaia beregain hartuko ez balu, hiru udal ikastolen asistentzia psikopedagogikoa, PSOE, HB, EA eta IU alderdien udal taldeek urtarrilaren 30ean izango den batzarrean hiru irakasle espezializatuak kontratatuko dituzte Axular, Amaiur eta Hegoaldeko zentruetako behar psikopedagogikoak betetzeko. Azken egun hauetan, duela bost urte hasitako eskaera gauza

tzarren udal ikastolekiko gurasoek mobilizazio erreindikatiboak egin dituzte zerbitzu hau lortzeko eta beste udal zentruetara parekatzeko.

Alderdi guztien ordezkarien ustez, Diputazioaren Zerbitzu Psikopedagogikoak arduratu beharko luke eskaera honetaz. Horretarako, UPNk proposaturikoaren arabera eta beste alderdien adostasunarekin, Alfredo Jaime Iruñeko alkatea, Jabier Markotegi Hezkuntza kontseilariarekin bilduko da. Gauzak horrela, bilera hau ongi burutzen baldin bada Gobernuak hartuko ditu beregain udal ikastolen beharrak, eta istiluak amaitutzat joko dira. Akordioa lortzen ez bada, berriaz, alderdi guztiek, UPNk ezik, 30ean izango den batzarrean hiru irakasle espezializatuak

kontratatze oniritzia eman dute. Gurasoek Hiritar Zerbitzu Batzordearen bileraren bukaeran jakin ahal izan zuten alderdien erabakia, Idoia Sola Hegoalde Ikastolako zuzendariak jakin arazi digunez. Izan ere, gurasoek ordu erdi batez azaldu zuten euren eskakizuna batzordearen aurrean. Eztatidaren orduan, berriaz, kanpora atera behar izan zuten Maribel Beriain zinegotziak horrela agindu zuelako. Politikoez agindutakoa betetzen badute ikastola bakoitzak teknikari bat izanen du, hau da, espezialista bakoitza 500 umez arduratuko da. Amaiur, Axular eta Hegoaldeko zentruetan 1.500 ikasle bait daude matrikulaturik.

Idoia Solaren ustetan positiboa da ikastolekiko gurasoek lortu dutena euren mobilizazioen bitartez. «Alderdi politikoetako ordezkariak zentruetara jaisten diren lehenengo aldian izan zen pasa den astea. Beste hiru gurasoak komisiotan sartzea eta euren eskaerak azaltzeko aukera izatea positiboa dela uste dut».

Hegoaldeko zuzendariak adierazi digunez, laguntza psikopedagogikoa ez baldin badute onartzen erreindikatarioekin aurrera egiteko prestatu agertu dira gurasoak. «Hitz onak baidira baina guk epeak behar ditugu. Aspaldidanik ari gara eskaera berberak egiten eta beti hitz goxoak entzuten ditugu. Maribel Beriainek esan digunez berak aspaldian aurkeztu zuen arazoa behar den tokian baina guk ez dugu deus jakin ahal izan».



MANUEL MAKAZAGA GOÑI «MAKA»



Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, berrituko honetan irauengo duten zuhaitz ardaxka gazteak

1992ko urtarrilaren 13an hil zen, 56 urte zituela

Haren emaztea, Inaxi Agirre; semea, Josetxo eta honen lagun Sylvie; izeba eta osaba Maria Goñi eta Juan Azurmendi; suhi-errainak eta gainerako ahaideak.

Hernani, 1992ko urtarrilaren 16an